BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5208

EBAZPENA, 2011ko irailaren 27koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, hainbat ikastetxeri 2011ko maiatzaren 18ko Aginduaren babespean eskatutako diru-laguntza ematen diena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko maiatzaren 18ko Aginduak, 2010-2011 aldian, Arte Plastikoetako eta Diseinuko heziketa-zikloetako prestakuntza praktikoaren fasea (PPF) egiteko diru-laguntzak jaso ahal izateko eskakizunak eta horiek kudeatzeko prozedura jasotzen ditu.

Aipatutako 2011ko maiatzaren 18ko Aginduaren 2.4 artikuluan adierazitako epearen barruan, ikastetxeek Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari diru-laguntza eskaera aurkeztu diote.

Espedienteak aztertu ondoren, aipatutako aginduak ezarritako baldintza orokorrak eta berariazko eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu da.

Beraz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Prestakuntza Praktikoaren Fasea egiteko, hainbat ikastetxeri guztira 17.425,51 euroko diru-laguntza ematea. Zenbateko horren banaketa ebazpen honen eranskinean jasota dago.

Bigarrena.– Ikastetxeek ikasle, enpresa eta tutore bakoitzari dagozkion diru-laguntzen likidazioa egin beharko dute. Likidatzen ez diren kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, 2011ko maiatzaren 18ko Aginduaren 6.2.i) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.– Ikastetxeek, diru-laguntza jasotzen dutenetik hiru hilabeteko epean, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari memoria ekonomiko bat igorri beharko diote, deialdia egiteko aipatutako aginduaren 6.2.j) artikuluan adierazitako baldintzetan.

Laugarrena.– Ikastetxeak, diru-laguntza horiei dagokienez, erakunde emaileak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarriko dira, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Kontu Epaitegiari emango diete beraiek eskatutako informazioa. Horretarako, ikasleei, enpresei eta tutoreei egindako ordainketen ziurtagiriak gordeko dituzte, diru-laguntza ematen denetik hasita bost urteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 27a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
CÁNDIDO HERNÁNDEZ GARDUÑO.

ERANSKINA

LURRALDEA: ARABA

Kodea	Ikastetxeak	Enpresak	Ikasleak	Tutoreak	Guztira	Sarea
010246	EASD / ADGE de Vitoria-Gasteiz	3.194	194		3.388	Publikoa
GUZTIRA		3.194	194		**3.388**	

LURRALDEA: GIPUZKOA

Kodea	Ikastetxeak	Enpresak	Ikasleak	Tutoreak	Guztira	Sarea
013025	IES Usandizaga BHI	1.580,4	148		1.728,4	Publikoa
013024	CAAPD Kunsthal APDIB CIF: B20593810	4.052,57	488	760,96	5.301,11	Pribatua
GUZTIRA		5.632,97	636	760,96	**7.029,51**	

LURRALDEA: BIZKAIA

Kodea	Ikastetxeak	Enpresak	Ikasleak	Tutoreak	Guztira	Sarea
015188	IES Ibarrekolanda BHI	1.140,3	676		1.816,3	Publikoa
015003	CAAPD Inutec APDIB CIF: B95108080	2.043,9	532		2.575,9	Pribatua
015477	CAAPD Argiarte APDIB CIF: B95332573	1.963,8	652		2.615,8	Pribatua
GUZTIRA		5.148	1.860		**7.008**	

LURRALDE GUZTIAK	GUZTIRA
	Eurotan 17.425,51